



AF - ELHUYAR SARIAK

Ohitura ere bilakatu da gurean. Azken lau urteotako Elhuyar. Zientzia eta Teknika aldizkariaren otsaileko alea hartu eta berehala jakingo duzu, irakurle zuhur horrek, zertaz ari garen. Guk ez ditugu Nobel Sariak banatzen, ezta aurten bertan lehen aldiz banatu diren Helena Rubinstein emakume zientzialarientzako sari bereziak ere. Baina urteak joan eta urteak etorri, gure sariak ere lortu dute Euskal Herriko zientzi komunitatean oihartzuna. Eta horixe da, hain zuzen ere, ondoko orrialdeetan, hitzez eta irudiz, azaldu nahi dizuguna. Izan ere, urtarilaren 16an eman ziren ezagutzera 1997ko CAF-Elhuyar Dibulgazio Sariak. Aurtengoarekin laugarren ediziora iritsi da deialdia.

DIBULGAZIOAN TXAPELDUN

Nogeras

Elhuyar - Zetiaz



CAF - ELHUYAR SARIAK

Ohi bezala, lagunak eta lankideak elkartzeko bidea eman zigun urteroko sari-banaketa ekitaldiak. Lasarte-Oriako Txitxardin Beltxa jatetxean ehun lagunetik gora elkartu ginen Pepelu eta bere lankideen pintxo gozoak dastatzeko eta aurtengo irabazleei zorionak emateko. Ekitaldi laburraren ondotik izan genuen horretarako aukera.

... eta honekin, lau

Lau urteko ibilaldia, bere txikian handia da CAF-Elhuyar Sariak antolatzen dihardugunontzat. Lau urte, egia da, nahikoa tarte eskaxa da sariketa baten oihartzuna epaitu ahal izateko. Baina Elhuyar Kultur Elkarteko lehendakariak, Inaki Irazabalbeitia, sarrera-hitzaldian esan zuen bezala, *“euskarazko zientzi dibulgazioak, apurka-apurka, dagokion maila erdietsi du; urteetan egindako lanaren emaitzak dira sariketari esker plazartzaren ari direnak”*.

Sariketa duela lau urte abiatu zen, Elhuyar Kultur Elkartek sustaturik eta Beasaingo CAF enpresak diruz lagundurik. Euskaraz lanean ari diren profesionaleri —zientzialariei nahiz kazetariei— beren lanak argitaratzeko forum egokia atontzea zen helburua. Lau urteotan 100 lagun inguruk hartu dute parte sariketan, artikulua eta liburuak argitaratuz. Sariketa baino lehen ere, *Elhuyar. Zientzia eta Teknika* aldizkarian formatu dira idazle on asko, hilero-hilero eta

hutsik egin gabe —eskerrik asko!— zientziaren alde desberdinak modu argi eta ulerterrazean gerturatu dizkigutenak. Horiek gabe, nekez iritsiko zen eskuartean duzun aldizkari hau bere 128. alera. Baina idazle berrientzat zailagoa izaten da lehen esperientzia hori lortzea, non trebatua izatea, hain zuzen ere. Hutsune hori betetzeko xedez ere sortu zen sariketa: idazle berriak “zirikatze” argi dezagun, beste ezer baino lehen, zein diren idazle berriak: gure aldizkarian bost artikulua baino gutxiago argitaratu dutenak, edo bat ere ez.

Euskarazko dibulgazioak korrika hasi behar izan du lau hankatan ikasteko betarik izan gabe. Ibilian trebatu gara idazleok, irakurleak eta hizkuntza bera. Urte gutxitan, izan ere, euskarak bereganatu ditu duela gutxira arte erabat arrotzak zitzaizkion eremuak eta horien artean dago, jakina, zientziaren dibulgazioa. Zientzi gaiak zehaztasun handiz landu dituzte egileek. Hizkuntza bera gaitu dute; gaur egun puntako edozein gai zientifikori buruz idatz dezaketen euskaldunak aurkitzea ez da jadanik hain zaila. Zientzia eta teknologia gizarte modernoaren zutabe nagusiak dira; kultura unibertsalaren zati garrantzitsua da, halaber, dibulgazioa. Eta hori jadanik euskaraz egiten da normaltasun eta naturaltasun osoz. Neurri txiki batean bada ere, era horretako ekimenei zor zaie hizkuntzaren beraren gaitasuna.

1997ko ohorezko zerrenda

Sariak zuen aurrean, Elhuyar zale, irakurle, lagun eta lankideen aurrean, eman ohi dira ezagutze-
ra. Egun hori iritsi arte, izan ere, epaimahaiko kideek baino ez dute ohorezko zerrenda ezagutzen; abenduaren amaialdean elkartu zen epaimahaia Usurbilgo gure bulegoetan eta sarien banaketa-



I. Nogeraz

Koldo Nuñez-Be



I. Nogeraz

Inaki Irazabalbeitia et



I. Nogeraz

Unai Ugalde
eta
Jesus Ugalde

Nogeraz





I. Nogeras

er Duoandikoetxea,
Luis Mari Bandres



Txantxon Zubeldia, Andoni Sagarna eta
Jose Angel Ugarte

Miel Guridi eta Juan Gastesi

I. Nogeras



I. Nogeras



Arturo Elozegi, Leire Barruetaña eta
Lorea Gabiola

I. Nogeras



Jose Jabier Iñigo eta
Luis Fernandez

ka Aurrekoetxea

J. Larrañaga



Kepa Altonaga, Pili Kaltzada, Jon Altonaga,
Ana Puente eta Itziar Nogeras.

I. Nogeras



I. Nogeras



Xabier Huizi eta Iñaki Uria

nomia eta Enpresa arloetakoak. Azken sari hori da, hain zuzen ere, aurtengo berrikuntzarik aipagarriena. Jose Mari Rodriguez Ibabek banaketa-ekitaldian esan zuen bezala, "arlotan egiten ari diren lanak gero eta garrantzi-

tsuagoak dira. Garai batean zientzia eta teknologia erabat bereizten genituen, baina gaur egun elkarren eskutik doaz. Gero eta garrantzi-
tsuagoak dira enpresa-, ekonomia- eta hirigintza-arloak herri honen garapenerako eta lan horiek gure

hizkuntzan, euskaraz, jaso behar ditugu. Euskarak, izan ere, arlo horiek ere bereganatu behar ditu".



Zientzi dibulgaz

EMA i

I. Nogeraz



LEHEN SARIA 100.000 pta.

Izenburua: *Cacyreus Marshalli*:
ZURE GERANIOAK JAN(GO) DITUEN
TXIMELETA.

Egilea: Santiago Pagola Carte (Donostia)

Lana saritzeko arrazoiak: Azalpenaren egokitasuna eta zuzentasuna. Naturako gaiak gure artean sortu ohi duten interesa berekin bat darama; freskotasuna eta ulergarritasuna lehenetsi ditu, ez, horratik, zuzentasunaren kaltetan. Globalizazioaren aurrean, eremu txikiagoetan gerta daitezkeen desorekak azaltzen ditu, bere konponketaren mugak agerian jarritz. Gaiaren planteamendua bikaina da, hasieratik bukaera arte bikain lotua, alegia.

Lanaren deskribapena: Hegoafrikar Errepublikako tximeleta da *Cacyreus Marshalli* izenekoa, baina udaz geroztik nahikoa ezaguna da gure artean. Izan ere, balkoietako geranioak erabat txikitzen ditu eta, ezezagunak zaizkigun arrazoiak direla medio, gure lurraldera iritsi da. Jatorrizko bizilekuan ez bezala, gure artean berebiziko indarra erakutsi du, izurri izatera iritsiz zenbait kasutan. Animalia honen ezaugarriak, zabaltzeko erabili dituen bideak, bere portaeraren zergatiak edo hipotesiak eta izurriak etorkizunean izan ditzakeen ondorioak aztertzen ditu artikuluak.

BIGARREN SARIA 50.000 pta.

Izenburua: ALEDUN, LABORE, ZITU EDO ZEREALAK

Egilea: Gerarta Iñaki
Arotzena Otxotorena
(Aizarnazabal)

I. Nogeraz

Lana saritzeko arrazoiak:

Jantzi apainekoa eta aurkezpen zein irudien oinarri dotorea. Informazio zabala eskaintzen du eta diziplina desberdinetako ekarpenak egiten ditu. Zituei buruzko bilduma labor bezain osatua eskura ekarri digu egileak.



Lanaren deskribapena: Elikagai hutsak baino gehiago dira zerealak. Hala izan da historian zehar eta, artikuluak erakusten digunez, zibilizazioen motore ere izan dira. Artea, zenbait gizarteren aurrerapena eta garapena eta gaur egun irautea bera ere, neurri batean zor zaie zerealei. Historian zehar izan duten bilakaera eta bakoitzaren ezaugarriak eta erabilera zehatz-mehatz aztertu ditu egileak.

E PAIMAHAI A

Jabier Agirre, UZEIko langilea, medikua, OEEko lehendakaria

Jesus Mari Txurruka, biologoa, EHUKo irakaslea

Jose Mari Rodriguez Ibabe, goi-mailako injinerua, CEITEko ikertzailea

Josetxo Alvarez, ekologista, irakaslea

Mikel Zurbano, ekonomian lizentziatua, EHUKo irakaslea



lorako Iv. Sariak

TZAK

HIRUGARREN SARIA
25.000 pta.

HIRUGARREN
SARIA
25.000 pta.

Izenburua: PENTSAMENDU KLONIKOAK

Egilea: Jon Umerez Urrezola
(Donostia)

Lana saritzeko arrazoiak:

Gaurkotasuna erabatekoa du gai honek. Orain arte egin diren saioak bildu eta klonazio biologikoaren deskribapen zehatz, interesgarri eta ulertteraza egin du egileak.

Lanaren deskribapena: Pasa den urteko lehen hilabeteak ardi bati begira eman genituen; genetikaz deus ez zekitenak ere ohartu ziren urrats horren garrantziaz. Alabaina, zehatza da gertakari honen inguruan esandako guztia? Egileak makina bat galdera aztertzen ditu artikuluan zehar, bioteknologiak gaur egun eskaintzen dituen abantailak eta arriskuak erakutsiz. Klonazio biologikoa osatzen duten

urratsak deskribatu ditu eta ez dio muzin egin egunotan denon ahotan ibili den balizko giza klonaziori buruz bere iritzia emateari.



Izenburua: EHIZA KONTSERBAZIOARAKO TRESNA?

Egilea: Santiago Larrañaga Arrizabalaga
(Azkoitia)

Lana saritzeko arrazoiak: *Gaurkotasuna sekula galtzen ez duen gaia da; mutur kontrajarrietan dauden taldeak eztabaida aberasgarriak gauzatzeko topagune izan daiteke hemen aipatzen den esparrua; gainera, kausistika errazean geratu gabe, eredu teoriko orokor batzuk oso modu argian azaltzen ditu.*

Lanaren deskribapena: Ehizaren kudeaketa egokia kontserbazioarako tresna baliagarria izan daitekeela defendatzen du egileak lan honetan. Berez, kontserbazioa eta ehiza elkarren berririk ez duten bi mutur izan ohi dira gure artean, baina artikulua biak elkarganatzen bideak erakusten dizkigu, adibide konkretuak ipiniz.

I. Nogeraz



SARI BEREZIA
25.000 pta.

Izenburua: INGURUGIROA ETA ENPRESA BATERATZEKO
MODUAN GAUDE?

Egileak: Lorea Gabiola Anakabe (Lekeitio) eta
Leire Barruetaña Oregi (Getxo)

Lana saritzeko arrazoiak: *Gaur egun industria edo lantegi batean kalitate osoari buruz hitz egiten denean, egindako produktuen kalitatea baino gehiago esaten da; gero eta garrantzitsuagoa da lantegi horrek ingurugiroarekiko duen portaera. Eta artikulua honek ingurugiroa eta enpresa aztertzen ditu, horretarako une honetan erabiltzen diren ikuskaritza eta gainerako kudeaketarako sistemak garbi azalduz. Gaiaren garrantzia ikusita eta egileen tratamendua oso egokia dela kontuan izan du epaimahaiak sari berezi hau emateko.*

Lanaren deskribapena: Ingurugiro-kudeaketa gero eta gehiago entzuten den kontzeptua da. Horren giblean filosofia desberdinak egon daitezke, baina guztiek bat egiten dute oinarritzko faktorean: ingurugiroa babestea enpresaren zeregina da. Esperientzia konkretu batetik abiatuta, egileek ingurugiroa kudeatzeko sistemak enpresetan aurki ditzaketen oztupoak erakutsi dizkigute eta proposamenak egitera ere jo dute, eredu benetan interesgarriak lortuz.

I. Nogeraz

